

Seme kutunaren azken oparia

Martin Ugaldek bere bizitzan osatutako liburu eta agirien funtsa Andoaingo herriari eman dio familiak

AINHOA SARASOLA. ANDOAIN

Zortzi urteko mutiko koxkorra zela, Emilio Salgariren *El corsario rojo* abentura liburua topatu zuen Andoaingo udal liburutegian Martin Ugaldek (Andoain, 1922-Hondarribia, 2004). Liburu hura irakurtzetik sortu zitzaion idazteko zaletasuna, bere seme-alabei kontatu izan zenez, eta gerora lan oparoa utzi zuen idazle, kazetari eta euskaltzaleak. "Liburutegi batean hasi zen hori, gogorarazi du Unai Ugalde semeak. Eta aitak bere bizitzan bildutako liburu eta bestelako agiriak liburutegi batean bilduko dituzte orain. Izan ere, bere bilduma Andoaingo herriari (Gipuzkoa) uztea izan zen Ugalderen nahia, 2004ko urrian hil aurretik. Herriko seme kutunaren borondatea bete zuen atzo Udalak, funtsa gorde eta herritarren esku jartzeko konpromisoa hartzeko eginiko bilkura berezian. "Bere liburutegitxotik, Andoaingo idazle baten txoko horretatik, norbaiti idazteko halako gogo sortzea espero dugu, esan zuen semeak.

Sei mila ale inguruko bilduma osatu zuen euskaltzale eta idazleak bere ibilbidean. Andoaingo herriari utzitako ondarearen parte dira bere liburu guztiak; Ugaldek haietan idatzitako oharra dituzte askok. Bere bildumaren fitxategia ere egina zuen Ugaldek, eta liburuekin batera jasoko dute. "Bere eskutitzak ere badaude bilduman, 3.000 inguru, eskuz nahiz makinaz idatziak bere solaskideei, Agirre lehendakariari, Leizaolari... Garai hartan eskutitz asko idazten ziren, eta denak hor daude, azaldu zuen Unai Ugaldek.

Bulegoko objektuak ere bai

Bulegoan zituen zenbait objektu ere jaso dituzte bilduman: lortutako diplomak, haren gurasoen marrazki batzuk, baita Pio Barojarenak eta gustuko zituen idazleenak ere, EHUK oparitutako makila... "Bere inguru osoa dago hor, gu ia ez gara ezerekin gelditu. Bere nahia hori zen: bere liburutegia bere herriari ematea, eta egin da azkenean.

Bere liburutegia balio handikoa zen Ugalderentzat, semeak gogoan duenez. "Oso langilea zen, eta bere lanaz aparte ez zuen objektuekin edo aberastasunekin interesik. Beraz, hori zen eman ahal zuena; idatzi duena eta gordeta zeukana. Aita "bere gauzetarako oso ordenatua zela gogoan du, eskuz idatzitako fitxategiak zituela eta bulegoko ale guztiak erraz topatzen zituela. Hala ere, bere arrebek, Ainarak nahiz Itsasok, bilduma atontzeko eta antolatzeko egin duten lan handia nabarmendu zuen.

Funtsa, liburutegi berrian

Ekitaldi labur eta xumea egin zuten Andoaingo udaletxean atzo eguerdian, herriko seme kutunaren nahia betetzeko. Ugalderen alargun Ana Mari Martinezi eta Unai, Itsaso eta Ainara seme-alabei ohorezko aurrekua eskaini zieten bi dantzarik aretora sartzean; hainbat senide eta lagun zain zituzten barruan. Ugalderen funtsa emaitzan onartzea, eraiki asmo duten udal liburutegian areto berezi batean bilduma osoa jartzea, eta liburutegi berriari Martin Ugalde izena jartzea aho batez onartu zuen udalbatzarrek. Erabakia ofizial egiteko agiriak izenpetu zituzten Ugalderen alargunak, hiru seme-alabek eta Estanis Amutxastegi alkateak.

Aitaren liburutegia leku egokian uzten dutelakoan, eskerrak eman zituzten senideek. Jon Unanue euskara zerbitzuetako arduradunak eginiko lana eskertu zuten bereziki. "Familiaren laguna da, eta ongi ezagutzen du aitaren ibilbidea. Bildumaren katalogoa jasotzen duen larruzko liburu bat eta katalogo bera jasotzen duten CD eta liburuxka bana gordetzen dituen kutxa txiki bat eman zioten senideek alkateari.

Idazle eta euskaltzalearen "altxor txikia andoaingar eta euskaldun guztien zerbitzura jartzeagatik, senideekiko esker oneko hitzak izan zituen alkateak. Liburutegi berria eraikitzeko epeei buruzko zehaztasunik ez zuen eman alkateak, baina "arrazoizko epe batean gauzatzea espero duela adierazi zuen. Bien bitartean, bildumako dokumentuetako asko biltegi batean dituzte orain.

Liburutegi berriak aitaren izena eramatea eta bere bildumari halako lekua ematea "ohore handia da familia osoarentzat, semeak adierazi zuenez. "Aldi berean, bere ondarea mantenduko dela ziurtatzen da.

Ibilbide oso baten aitortza

Euskararen aldeko lanean nekaezina izan zen Ugalde. Abertzalea izateagatik, 1947an Venezuelara ihes egin behar izan zuen, eta 22 urte eman zituen han, hainbat aldizkaritan lanean. 1969an itzuli zen Euskal Herrira, eta kazetaritzaren bidetik jarraitu zuen, baita ipuin, eleberri, antzerki, saiakera eta historia lan ugari idatzi ere. 1982an Eusko Jaurlaritzako Euskarazko Arazoetarako zuzendari izendatu zuten. Handik hainbat urtera, lan handia egin zuen Euskaldunon Egunkaria sortzeko - kazetaren ohorezko lehendakari izan zen-. EHUKo Honoris Causa doktore, ohorezko euskaltzain eta Euskal Herritar Unibertsalaren izendapenak jaso zituen bere ibilbidean, besteak beste. Euskararen alde dena emanda hil zen euskaltzalea 2004ko urrian Hondarribiko bere etxean, artean Egunkaria auzia-n inputatua izateko aukera zabalik zuela.

Euskararen eta euskal kulturaren alde "unerik okerrenetan edo arrisku handien zegoenean jardun zuen gizon baten istorioa da Ugalderena; gerora euskarak aurrera egin zuela eta lan hori aitortua zitzaiola ikusi zuena, semearen hitzetan. "Gure kultura eta hizkuntzaren garaipen txiki baten istorioa da gure aitarena, eta zabaltzea espero dugu, oraindik asko baitago egiteko.